

ETXEBIZITZAREN OZTOPOAK

Mikel, Erkuden, Ainhoa eta Peio Altsasuko gazte koadrila bat da. 24 eta 28 urte arteko lagunaK dira. Larunbatero bezala, Txistu tabernan zeuden bilduta musean jolasten. Mikel bere gurasoekin bronka izan zuen eta horrexegatik nahiko haserre zegoen. Kokoteraino zegoen etxean nahi zuena ezin zuelako egin. Etxetik joateko erabakia aspalditik hartuta zeukan.

Etxebizitza lortzeko mila gauza saiatu zituen: Lehenik eta behin herriko bankuetara jo zuen baina bere soldata oso baxua izateagatik inork ez zion mailegurik eman nahi. Horregatik, pisu bat alokatzea erabaki zuen. Higiezin-etxe guztietatik pasa zen baina oso gaztea zenez ez ziren berarekin fidatzen. Erkudenek udaletxera joateko esan zion, han herriko etxe hutsen zerrenda bat daukatelako. Han emandako zerrenda erabiliz, zenbait telefonoetara deitu zuen. Bi konklusio atera zituen: Alde batetik, aurrietan dauden etxeetan ezin dela bizi, eta beste aldetik egoera onean daudenen jabeek nahiago dutela etxea hutsik izatea alokatu baino.

Mikeli ideiak bukatu zaizkio eta lagunei aholkua eskatzen die:

- Oraindik ez dakit zer egin etxetik joateko! bururatzen zaizue zerbait? – esan zuen Mikelek-
- Nik inoren lurren dagoen etxe zahar bat ezagutzen dut, Urdiain eta Altsasu artean. Parerik bai! – erantzun zuen Ainhoak-

- Leku hori ezagutzen dut. Aintzinean jentilak bizi omen ziren. Jentilak Sakanako jende erraldoiak ziren. Hor bertan, Saraben, harriz egindako ikusleku bat zeukaten. –esan zuen Erkudenek-
- Egia da. Diotenez hor sorginak elkartzen zirela beren akelarreak egiteko. –gehitu zuen Peiok-
- Zergatik ez gara joaten nola dagoen ikustera eta han bizi daitekenetz?

Lau hilabete pasa dira mus partida hartatik. Etxearen zaharberritze lanak ia ia bukatu dituzte: teilatua konpondu, hormak zutitu eta margotu, ura eta argindarra sartu...

Egun batetik beste batera, kartel erraldoi bat erdaraz idatzita agertu zen etxe ondoan.



Egileak: Miguel Angel Nuncio
Javier Bergara
Oscar Marañon